





# PRESTAKUNTZA PILULAK

## GORROTO-DISKURTSO

eta **FAKE NEWS**en aurrean

[educacionjuventud@congdn Navarra.org](mailto:educacionjuventud@congdn Navarra.org) en informazio gehiago





## 1 Fake News: gezurretik edo propagandatik haratago.

### Azalpena:

Aztertuko dugu zer diren fake newsak, nola detektatu eta nola bereizi halako albiste faltsuak eta beste komunikazio mota batzuk. Ikusiko dugu gizarte-sareen egiturak berak eta berdinen arteko itxurazko komunikazioak haien zabalkundea eta komunitate zein identitate partekatuen sorrera sustatzen dituztela. Aztertuko dugu zer-nolako zerikusia duten konspirazioaren teoriekin eta gorroto-diskurtsoekin, baita gizakiak ziurtasunik gabeko egoeretan "patrioiak" eta azalpenezko kontakizunak bilatzeko daukan premiarekin ere. Halakoei buru egiteko estrategiak proposatuko ditugu, sen kritikoa landuz.

### Gazteleraz.

### Erakunde arduraduna:

Aloa Comunicación

### Norendako:

14 urtetik gorakoendako.

### Lantegiaren iraupena:

2 ordu.

### Lantegiaren helburuak:

Informazioz mukurik beteriko mundu honetan, etengabeko erronka da bereiztea zer den egia albisteetan, argitalpenetan eta komunikabideetan. Albiste faltsuak eta gorroto-diskurtsoa kezka bihurtu dira mundu osoan, komunikabideekiko mesfidantza sortzen baitute, eta jendea banantzen duten narratibak hedatzen. Ikastaro honen helburua da erronka horri aurre egiteko beharrezkoak diren tresna batzuk eskuratzea.

## 2 Gorroto-diskurtsoak. Egiturazko kausak eta herritartasun globala. Txokolate-tableta.

### Azalpena:

Desberdinkeriaz hausnartzeko jarduera bat proposatuko dugu eta, horretarako, bidezko merkataritzako txokolate-tableta bat banatuko dugu parte-hartzaileen artean. Ezagutuko dugu nola dauden banatuak baliabideak munduan eta zein diren desberdinkerien eta pobrezien azpiko kausak. Aztertuko dugu zer eragin duen egoera horrek munduko jende aunitzen giza eskubideen urraketan. Testuinguru horretan, bada joera bat pertsona txirotuak beren egoeraren erantzule egiteko, egoera hori norberaren erabakien ondorio izanen balitz bezala eta ez egiturazko arazoaren ondorio. Gorrotoa desberdinkerian hasten da.

### Gazteleraz.

### Erakunde arduraduna:

Medicus Mundi

### Norendako:

14 urtetik gorakoendako.


### Lantegiaren iraupena:

Ordu eta erdi.

### Lantegiaren helburuak:

Gorroto-diskurtsoen eta diskurtso negazionista edo ukatzaileen aurrean, ezinbestekoa da esparru berriak sortzea halako mezuak deseraiki eta geldiarazteko, kaltegarriak baitira berdintasunezkoa izan nahi duen eta giza eskubideak inolako diskriminaziorik gabe bermatu nahi dituen gizarte ororendako. Jendea gorrotoaren diskurtsoei aurre egitera adoretzeko, funtsezkoa da ezagutzea zein diren desberdinkerien azpian dauden egiturazko kausak eta jabetzea zeinen konplexua den errealitatea.





## 3 Eskubideen ikuspegiari buruzko hastapena.

### **Azalpena:**

Ordubeteko 3 saio. Saio batera edo bira moldatzeko aukera dago.

Errealitate globalera hurbilduko gara, mundua nola ikusten dugun eta horri buruz zer dakigun aztertuko dugu. Gainera, Giza Eskubideen historiari buruzko ibilbide bat egingo dugu, horiek baitira mugarririk aipagarrienak, eta beren bizitzak eskubideen defentsan ematen dituzten pertsonak ezagutuko ditugu.

Informazio hori guztia sare sozialetarako eduki bihurtzen saiatuko gara, eskubideak defendatzen jarraitzearen eta hainbat gorroto-diskurtso desegitearen garrantzia zabaltzeko. Landutako edukia podcast baten bidez zabaltzeko aukera egongo da, eta horretarako, gure irratia eramangarria, reels eta bideo laburrak, memeak edota argazkiak erabiliko ditugu.

### **Erakunde arduraduna:**

Asociación Navarra Nuevo Futuro.

### **Norendako:**

14 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua.

### **Lantegiaren iraupena:**

3 ordu.

### **Lantegiaren helburuak:**

Sare sozialetan aritzen garenean, eraldaketarako zenbait tresna edukitzea, eskubide-ikuspegia duten eduki eraldatzaileak diseinatzeko.

### **Gazteleraz eta euskaraz.**

## 4 Garapen jasangarrirako 8. helburua. Mundu hobe baten alde lan egitea.

### **Azalpena:**

Ordubeteko 3 saio. Saio batera edo bira moldatzeko aukera dago.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala errebasatuko dugu jokoan bitartez, errealitate globalera, GJHetara eta 2030 Agendara hurbilduko gara, eta lan duinari buruzko 8. GJHra begira jarriko gara. Nola lan egin eta bizi nahi dugun hausnartuko dugu, zeintzuk dira gure beharrak, eta mundu globaleko beste errealitate eta esperientzia batzuetara hurbilduko gara. Hori guztia dinamika parte-hartzaileen bidez jorratuko dugu, gure itzaropenei eta pertsona askoren lan- eta bizitza-egoerari buruz gogoeta egitera bultzatuko gaituztenak.

Taldearen hausnarketekin sare sozialetarako edukia landuko dugu, espazio horietako errealitatea islatzeko eta gai horri buruzko gorroto-diskurtso ezberdinak desmuntatzeko.

### **Erakunde arduraduna:**

Asociación Navarra Nuevo Futuro.

### **Norendako:**

14 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua.


### **Lantegiaren iraupena:**


3 ordu.

### **Lantegiaren helburuak:**

Aldaketarako tresnak edukitzea "lana etorkizunean" gaiaren inguruko eduki eraldatzaileak diseinatzeko, sare sozialetan dauden gorroto-diskurtsoen mezuetatik aldentuta.

### **Gazteleraz eta euskaraz.**





## 5 **Dabilen mundua, eskubide-kontua.**

### **Azalpena:**

Ordubeteko hiru saio.

Lehen egunean, esparru globaletik tokikora bidaiatuko dugu, arlo pertsonalera, eta historian zehar gertatu diren bateko eta besteko migrazioei begiratuko diegu: premien eta desberdinkerien ondorio izan dira, eta gizateria osoak parte hartu dugu haietan. Bigarrenean, migratzaileei erasaten dieten fake news, zurrumurru eta estereotipoetan sakonduko dugu. Eta azkenekoan, lanari ekinen diogu errealitate bidegabe hori memeen bidez aldatzeko.

### **Gazteleraz.**

### **Erakunde arduraduna:**

Munduko Medikuak

### **Norendako:**

14 urtetik gorakoendako. Bigarren Hezkuntza Formala eta ez-formala.

### **Lantegiaren iraupena:**

3 ordu.

### **Lantegiaren helburuak:**

Etorkinenganako portaera eta jokabide positiboak sustatzea Espainiako gizartean, giza eskubideak defendatuz guztiok, kohezio unibertsalerako osagai baitira.

## 6 **Zibersegurtasuna. Arriskuko portaerak.**

### **Azalpena:**

Saio batean, Internetekin lotutako zenbait legekontrakotasunen inguruko kontzeptuak eta erabilera komuneke terminologia argituko ditugu. Deskribatuko dugu zein diren tresna informatikoak eta komunikazio-tresnak erabiltzean gorde beharreko jardunbide egokiak lanpostuan, hezkuntza-eremuan, etxean eta alor pribatuan. Gainera, ikasiko dugu zertan dautzan legez kanpoko zenbait ekintza, sare sozialak delituak egiteko asmoz baliatzen direnak, eta zein diren etortzekoak diren zibermehatxuak. Saioa amaitzeko, gure datuak seguru egoteko eta informazio faltsua detektatzen saiatzeko metodologia ulertuko dugu.

### **Gazteleraz.**

### **Erakunde arduraduna:**

Itziar Alforja. Diseinatzailea eta irakaslea

### **Norendako:**


14 urtetik gorakoendako. Bigarren Hezkuntza Formala eta ez-formala.

### **Lantegiaren iraupena:**


2 ordu.

### **Lantegiaren helburuak:**

Zibersegurtasuna beharrezkoa da Interneteko komunikazio-kanaletan dauden arriskuetatik babesteko. Arriskuko portaerak ezagutzea eta xehetasunei errepertzea informazioa babesteko, eta, urraketaren bat gertatuz gero, jakitea zer egin daitekeen.







## **7** Zurrumurruen aurkako estrategia eta gorroto-diskurtsoen prebentzioa.

### **Azalpena:**

Bizipen metodologia parte-hartzaileen bidez, hurrengo funtsezko kontzeptuak aurkeztuko ditugu: zurrumurruak, estereotipoak, aurreiritziak eta diskriminazioa. Eguneroko errealitate ezberdinetan dituzten inplikazioak eta ondorioak aztertuko ditugu, bai banaka, bai taldeka, bai gizartean/egituran, eta horiek kudeatzeko tresnak emango ditugu. Horretarako ikus-entzunezko baliabideak eta bizi-pen-dinamikak erabiliko dira.

**Gaztelerez eta euskaraz.**

### **Erakunde arduraduna:**

Nafarroako Zurrumurruen Aurkako Sarea.

### **Norendako:**

14 urtetik gorakoendako.

### **Lantegiaren iraupena:**

2 ordutik 5 ordura bitarte.

### **Lantegiaren helburuak:**

Eztabaidarako, hausnarketarako eta ekintzarako guneak sustatzea, elkarbizitza eta diskriminaziorik eza bultzatzeko lan-dinamikak sortuz. Zurrumurruen aurkako estrategia zabaltzea: partaideak estrategia aplikatzen gaituko dira, horretarako tresnak emanaz eta argudioak, gakoak eta zurrumurruen aurkako eragilearen figura landuz.

## **8** Zer-nolako zeregina betetzen duten albiste faltsuek (fake news) gorroto-diskurtsoak sustatzen.

### **Azalpena:**

Talde-lanaren bidez, albiste faltsuak eta egiazkoak aztertuko ditugu, agerian jartze aldera egiazkoak edo faltsuak diren, iturriak sinesgarriak diren, informazioa koherentea den eta isuri edo alborapenak ote dituzten. Lan horretatik abiatuta, benetatasunari buruzko eztabaida bati ekinen diegu, aurretik ikasitako egiaztapen-irizpideak erabiliz. Eta, bukatzeko, landutako ikas-kuntzak, erronkak eta estrategiak laburbilduko ditugu.

**Gaztelerez.**

### **Erakunde arduraduna:**

RODE fundazioa.

### **Norendako:**


14 urtetik gorakoendako.


### **Lantegiaren iraupena:**

2 ordu.

### **Lantegiaren helburuak:**

Albisteak egiaztatzeko eta alfabetatze mediatikoa lantzeko trebetasun praktikoak garatzea, online eta hedabideetan ager den informazioari buruzko hausnarketa kritikoa bultzatuz eta ikasgela barneko talde-lana sustatuz. Albisteak bereizteko eta egiaztatzeko trebetasunak lantzea partaideekin, eta jabeaztea zeinen garrantzizkoa den, informazioaren aro honetan, iturri fidagarriak erabiltzea eta albiste faltsuei erantzutea.





## 9 “Escucha Refugio”.

### **Azalpena:**

“Escucha [R]efugio”, soinu-koadernoaren bidez, hainbat testigantza eta esperientzia aurkeztuko ditugu, enpatia sustatzeko, entzute aktiboaren bidez eta parte hartzeko dinamika baten bidez, eta horrek guztiak lagunduko du errefuxiatuen errealitatea entzuten eta ulertzen, eta estereotipoak eta aurreiritziak deseraikitzen. Errealitate horren aurrean parte hartzea sustatuko dugu. Gainera, asiloaren eta babesaren arloko oinarritzko kontzeptu orokorrak ere ikusiko ditugu.

**Gaztelaraz eta euskaraz.**

### **Erakunde arduraduna:**

CEAR. Errefuxiatuari laguntzeko Espainiako Batzordea Nafarroan.

### **Norendako:**

14 urtetik gorakoendako.

### **Lantegiaren iraupena:**

Ordu eta erdi.

### **Lantegiaren helburuak:**

Errealitate desberdinak daudela jabetzea eta migratzaile, errefuxiatu zein boluntarioen esperientziak giza eskubideen, generoaren eta iraunkortasunaren ikuspegiak landuz uztartzea tresna egokia da enpatia eta ulermena sustatzeko, eta gizartean dauden zenbait estereotipo eta aurreiritzi deseraikitze balio du.

## 10 Migrazioaren ekosistema.

### **Azalpena:**

“Migrazioa”ren ideia zabalduko dugu, eta hari buruz hausnartuko, joaten direnen, gelditzen direnen eta etorkinak hartzen dituztenen bizipenei buruz, alegia. Guztiok elkarrekin eraikiko ditugu migrazioari buruzko bizipenak, norberarenak, familiarenak, eta kolektiboak. “Migrazio-doluaren” prozesuak pasatzen dituzten pertsonengan pentsatuko dugu, “hemengo” eta “hango” norbanakoengan. Batik bat aztertuko dugu zerk batzen gaituen, denak ere gizaki eta komunitate berberaren partaide garen aldetik, eta guztiok, azken batean, “migrazioarekin” lotuak gauden aldetik, aniztasunak dakarren aberastasunaz jabetuz.

**Gaztelaraz eta euskaraz.**

### **Erakunde arduraduna:**

SEI elkarte - Kulturarteko Gizarte-hezkuntzako Zerbitzua.

### **Norendako:**

14 urtetik gorakoendako.

### **Lantegiaren iraupena:**

2 ordu.

### **Lantegiaren helburuak:**

“Migrazioari” buruzko begirada zabaltzea eta ikusaraztea pertsona guztiok gaudela “migrazioarekin” harremanetan eta guztiok garelako gizarte-dinamiketako aktore nagusiak, UBUNTU break out jokoaren bitartez.